

KONTU-KONTARI

Orretan, sagutxuak itaundi ebeñ: “Ta gaztaia Nun dago?”

Ta TXIMIÑO “jakintzuak” erantzun eben:

–Zer gaztai? Nere lagun onak ¿Ez dozue ikuzi zeuen begiaikiñ zelan egin dan erdibitasuna? Gaztaiak ez dako garrantzirik! Garrantzia dago, ikuzi dozuen ERDIBITASUNIAN, eltzeko BARDINTASUNA, onek dakolako GARRANTZI aundiena. Ikuzi dozue-nez, gaztai bat ez da ezer. “Dan dana da: “BARDINTASUNA” izan edin “BAIKOTZARI BAIKOTZENA”.

Sagutxuak nastagarrituta, entzun ebenaz, ezan ebein:

–Baña gure gaztaia Nun dago?

Ta TXIMIÑO-ren erantzuna zan: “GAZTAIA? EZ DOZUE IKUSI ZELAN ERDIBITU DAN? ¿ERDIKITUTA DAGO GASTAIA! Ta onelan eldudozue biok “BARDINTASUNA”, ta ortik ikusten da argi ta garbi eldu dozuela “BAIKOTZENTZAT BAIKOTZENA”.

Sagutxuak, orretan, ikuzi ta entzun ebeñaz, erdi edo guttiz zorotua, makurtu ebeñ buruak, ta joanziak euren etxera.

Eldu zianian euren etxera, goizia zan. Euren aitamak euzein larrituta sagutxuak ez zian agertuten zialako. Baña aitamak uzainduebein gaztai uzaña sagutxuen artian, ta itaundi eutzain: “Ezan egia! Nun jan dozue gaztaia? Zuek gaztai uzañez zagoze! Emen ez dea ezaten gezurrik!

Sagutxuak, bildurrez beteta, erantzun ebeñ: Guk ez dogu jan gaztaia. Guk eukidogu, ondo irabazita, gaztai aundi bat... Ta jarraituzian ezaten egi-egia, gaztaien TXIMIÑO “jakintzuaen” “negar-garri” edesti luzea. Sagutxuen aitamak entzunebeñaz ezin ebein ziñistu euenenik lurrean lapur alakorik. Ta egunaz saguak (beintzat areik) lo egiten dabeinez, jare eueñ danori aldebatara, ta lotara joanzian, baikotza beren lekura. Etorren gabeen, entzunebenetik, joango zin danok “GAZTAI ONENA” tendera, gaztai gozoen billa.

Onain arte saguen lenengo edesti zatia.

Baña ikusi eigin “GAZTAI ONENA” –tako saltzaillearen edestia, orren ondoren. Zaltzailleak ikuzi ebenian, baten batek gaztai bat orostu ebela, ezaten zebein: Zein izan lezke oroztu ebenak nere gastaia? Atiak itxita euzein. Ipiñi zan begiratuaten alde guztietan, eta atzenian ikusi eben euela, an, zulo bat, ta ez zulo txikiña. Zulo aretatik baten batek eruan eben gaztaia. Baña ondo oldoztuta (ezan eben berentzat), batek bakarrik ezin dau eruan gaztaia, bat baño geiago izan dia. Orretarako badakit zer egiñ bierdoten. Ta orrelan gertatueben uztenebena izango zala onena etorren gaberako.

Ta eldu zan GABEA saltzallea itaiten eben gabea:

Sagu aitamak ta seme biak, gaberdian joan zian “GAZTAI ONENA” tendera, bata bestien atzean; danok zartuzian zulo baten, ta andik aurrera jarraitu ebein bidia gaztai gozuen billa: elduzian nai ebeñ lekura. Leku aretatik zer ikuzi-ebeñ? LAU GASTAI-ZATI! Ikusten ebeñaz poztu zian danok...

Baño ona izango da jakitia orduan euela ezkututa erakusmai ostean saltzallea makilla bate gaz eskuan itaiten...

Orrelan euzenian dan areik, sagu nagusienak, ezan eben: Danok egiñ bierdogu biar au batera: Aurrera! Ta orrelan izan zan!

Laurak batera joan zian artzera, baikotzak beren gastai-zatea. Baña baikotzak oratu ebenian gaztai-zati gozoa, entzun zan arrapalluen zaratak. Orretan, urten eben zaltzallean beren lekutik ikustera berak gertatu eben lekura, ta an dagozen LAU SAGUAK: Ilda danak. Ikuzi alaz an lurrian euena, ezan eben: Baikotzak baikotzena billatu dau ta arkitu dau!

ONTZATEGITXU

Lima. Perú

Ipuin au dago idaztita BIZKAI'ko antxiñako euzkerean.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

